



EKAINAK 28: LGTBI+ KOLEKTIBOAREN SEXU ASKAPENAREN ETA HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainaren 28an, LGTBI+ kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren egunean, udaletik harro gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harro gaudelako gure bizitzek, harro gure bizi historiaz, harro LGBTI+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituen honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGTBI+ fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

LGTBI+ komunitatea orain hamarkada batzuk baino askatasun handiagoarekin bizi da, aktibismotik egindako lanari esker legeen alorrean gertatutako diskriminazioei amaiera eman eta jardunbidean ia erabateko berdintasuna lortu baita. Hala ere, errealitate soziala berdintasun horretatik urruti dago. Oraindik ere ulertezintasun, aurreiritzi, diskriminazio, lesbofobia, homofobia, transfobia, intersexofobia eta bifobia zantzuak dituzten testuinguruak nagusitzen dira.

Legorretako herria ez da errealitate horretatik kanpo gelditzen, orain dela hiru urte aurkeztu genuen "Bizigarri" diagnostikoan argi azaltzen dira gure herritarren ahotik jasotako bizipenetan zer nolako zapalkuntzak jasan dituzten. Eta, denok egoera horri buelta emateko ardura hartzen ez dugun bitartean jasaten jarraituko dituzte.

Udaletik konpromezu argia hartu dugu LGTBI+ pertsonak aintzakotzat hartuko dituzten udal politika publiko feminista integralak martxan jartzeko, LGTBI+ komunitatea osatzen dutenen eskubideak bermatuak izango diren herri bat nahi dugulako.

Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGTBI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora ekainaren 28a!